



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO MARTXOAREN 14EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

*** 2017KO OTSAILAREN 28KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2017ko otsailaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2017KO MARTXOAREN 3KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2017ko martxoaren 3ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- HORTICULTURA AGRILAN S.L. ENPRESARI ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148. PARTZELAN NEKAZAL BILTEGIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA UKATZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0068

HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkarietan diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunak, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelan nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena eskatu du, aurreproiektua aukeztearekin batera.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 86.000,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	-----
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: -----
	Fidantza (%120): -----

Aurkeztutako dokumentazio aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2017ko otsailaren 23an ondoko txostena eman du hitzez hitz:



Usurbilgo Udala

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
ZUBIETAKO 9. POLIGONOKO 148 PARTZELAN NEKAZAL
BILTEGIA ERAIKITZEKO BAIMEN
AURREPROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Zubieta, 9. poligonoko 148 partzela.
ESKAERA DATA: 2017ko otsailak 10.
ESKATZAILEA: JESUS URROZ UGALDE.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.05/2017-068
AURREKONTUA: 86.000 €
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: Ez da aurkezten

AURREKARIAK

- Partzela horretan Usurbilgo Udalak 2005eko urriak 24an negutegiak eraikitzeke aldeko baimena eman zuen.
- Jarduerak Donostiako lurretan hainbat instalazio ere izan badauzka.
- 2017ko otsailak 10ean interesatuak, biltegia eraikitzeke aurreproiektua aurkezten du.

ARAUDI APLIKAGARRIA

- Usurbilgo Arau subsidiarioak.

67. art. Zubietako ibarra.

Gaur egun dauden nekazaritza-ustiapeneko erabilerei lotetsitako eraikuntza bakanak eraikitzea eta baimendutako gaur egun dauden bestelako erabilera ez-landataretara zuzendutako eraikuntzak berritu eta zabaltzea besterik ez da baimentzen.

*Eraikuntzak Dokumentu honetan **Lurzoru Urbanizaezinerako ezarritako baldintza orokorretara egokituko dira**, ondoko salbuespenekin:*

(...)

**Zubietako ibarreko Babeseko Lurzoru Urbanizaezinean baimendutako erabilerearako eraikuntzen baldintzei dagokienez:*

*1. Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntzari buruzko baldintzak.
Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntzari buruzko baldintzak ondoko hauek izango dira:*

*-Zuriz pintatutako zarpeatzeko edota hargin-lan naturalezko kanpoaldeko akaberak.
-Bi, hiru edo lau isurkiko estalkia, %40ko gehienezko aldapa, teilatu-hegalaren hegadura 1 metrokoa, teila zeramiko arabiara edo horren baliokidea.
Estalkiaren akaberako material gisa fibrozementua espresuki baztertzen da.
Estalki planoaren gainetik ez da gortputzik baimentzen.
-Gehienezko altuera librea 3,5 m-koa. Ez da bi oinik baimentzen.
-3 metroko zerrendaz zolatutako tratamendu perimetrala.
-Eraikitako 20m2 bakoitzeko eraikuntzaren inguruan zuhaitz bana landatzea.
(...)*

52. Art.


(...)

*Lurzoru ez urbanizagarrian, **industri erabilera eta nekazal munduaren paisai, ekologi, edo eta produkzio alorretako ezaugarriak eragin edo endaka ditzakeen bestelako edozein erabilera debekatuta dago.***



Usurbilgo Udala

- Nekazaritzako eta basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala
Balio estrategiko altuko lurretan kokatzen da biltegia.



TXOSTENA

Eraiki nahi den 206,04 m²-tako biltegia nekazal balio estrategiko altuko lurretan kokatzen da. Eraiki nahi den biltegia, nekazal erabilpenerako lagungarri izateaz gain, nekazal industria bat ere bada. (kamara frigorifikoak aurreikusten dira.) eta hiri erabilerak ere aurreikusten dira (Aldagela, komunak, jangela etab...)

Izaera orokorrez.

- Eraikinaren beharra justifikatzen duen inolako informaziorik ez da aurkeztzen. (NLU kopurua, erabiltzen diren lur sailak, langile kopurua, dagoen produkzioa maila, egun nekazal ustategiak dituen azpiegiturak etab...)
- Aurkezturiko eraikinak ez ditu Usurbilgo Arau Subsidiarioetako mota honetako eraikinei ezarritako baldintzak betetzen. (Gehienezko altuera librea 3,5 m)

Kontutan izanda:

- izaera orokorrez, lurzoru ez urbanizagarrian industria eta hiri erabilerak ez direla baimentzen, eta are gehiago, balio estrategiko altuko nekazal lurretan.
- Zubietako eta Oria ibaiaren erriberako paisaian eragin nabarmena izango lukeen eraikina dela.
- Eraikinaren erabileran produktu fitosanitarioen biltegia izan daitekeela, nahitaez, ustategian kokatu beharreko erabilera bakarra eta hori negutegi barruan egokitu daitekeela.



Usurbilgo Udala

Nekazal biltegia eraikitzeke baimen eskaerari KONTRAKO txostena igortzea proposatzen dut.

Usurbilen, 2017ko otsailaren 23an.
UDAL NEKAZARITZA eta INGURUMEN teknikaria.
Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi

Gauzak horrela, nekazaritza eta ingurumen teknikariaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: HORTICULTURA AGRILAN S.L. (IFK: B75153684) enpresaren ordezkartzan diharduen JESUS URROZ UGALDEA jaunari, Zubietako 9. poligonoko 148. partzelan nekazal biltegia eraikitzeke udal baimena UKATZEA, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

3.- 2016KO LAN ESKAINTZA PUBLIKOAN AURREIKUSITAKO LOREZAIN OFIZIAL POSTUAREN BARNE-PROMOZIO BIDEZKO HORNIDURA EFEKTURIK GABE UZTEA ETA 2017KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA.

Espediente zenb.: ID.06/2017-0077

IKUSIRIK

Udalbatzak 2016ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran Usurbilgo Udaleko 2017ko Langileen Plantila eta Lanpostuen Zerrenda onartu zituen. 2017ko urtarrilaren 4ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, eta behin betiko moduan 2017ko otsailaren 3an argitaratu ziren.

KONTUAN HARTURIK

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. eta 24. artikuluek diotena.

2015eko urriaren 30ean Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 48/2015 Legeko 20. artikulua.

Alkatetzaren 2005/1064 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2016ko Lan Eskaintza Publikoan aurreikusitako Lorezain Ofizial postuaren barne-promozio bidezko hornidura efekturik gabe uztea.

BIGARRENA.- 2017ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I. Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen den plaza jasotzen duena.

HIRUGARRENA.- Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

LAUGARRENA.- Plaza betetzeko hautaketa prozesua arautuko duten Oinarriak prestatzeko izapideei hasiera ematea.

ERANSKINA

2017KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hutsik dauden plazak 2017ko otsailaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko 2017 urteko Lanpostuen Zerrendan agertzen direnak dira.

2017 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak dira:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Plaza kopurua	Txanda	Lanaldia
C2	Administrazio Berezia	Zerbitzu bereziak	Lorezain ofiziala	2 derrigorrezkoa	1	irekia	100%

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.